



Haurren irakurzaletasuna sustatzeko familiaren eta bitartekarien arlo psiko-emozionalaren garrantziaz

Galtzagorri Elkartearen Haur Literatura Mintegia 2007tik biltzen da hilean behin larunbat goizez. Bertako kideek haurrentzat euskaraz argitaratutako liburu guztiak irakurri eta baloratzen dituzte eta gainera haur eta gazte literaturaren esparru ezberdinetan formazioa ere jasotzen dute.

Orain bi urte hasi ginen mintegiko kide ez direnei ere formazio saio horietara joateko aukera zabaltzen.

Aurtengo ikasturterako formazio saio berri bat antolatu dugu, oraingoan, ALDEE Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalek Euskal Elkartearekin elkarlanean. Hain zuzen ere, haurren irakurtzeko zaletasuna sustatzerakoan familiak duen ezinbesteko funtzioaz eta langintza horretan bitartekarien arlo psiko-emozionalak duen garrantziaz jardungo dugu.

Horretarako, bi aditu gonbidatu ditugu formazio saio honetan parte hartzera: Joan Portell, Kataluniako pedagogo, literatur kritikaria eta unibertsitateko irakaslea batetik; eta Juan Carlos Alonso psikologoa, Galtzagorriko kidea eta Haur Literaturak haurren garapenean duen eraginean hainbat lan eta hitzaldi eskainitakoa.

Lekua mugatua izango da, beraz, lehen bai lehen izena ematea gomendatzen da.

NORENTZAT:

Haur eta gazteen irakurzaletasuna sustatzeko kezka eta interesa duen edozein bitartekariarentzat: irakasle, bibliotekari, guraso, hezitzaile, dinamizatzaile, sortzaile, ikerlari, irakurle...

NON:

Donostiako Komikigunean. Errege-Erregina Katolikoek kalea, 16.

NOIZ:

Urriaren 28an, 9:30etatik 13:30etara.

EGITARUA:



9:30-11:30. FAMILIAREN GARRANTZIA IRAKUZALETASUNA SUSTATZEKO GARAIA. Emaila: **JOAN PORTELL**, pedagogo, literatur kritikaria, unibertsitateko irakaslea, *Municipi Lector* irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoaren koordinatzailea, idazlea, editorea... Portell irakurzaletasuna sustatzeko estrategietan eta Haur eta Gazte Literaturan aditua da.

2015ean bere doktore tesia argitaratu zuen familiak eta eskola inguruneak irakurzaletasuna bultzatzeko garaian duten garrantziari buruz. Lan honen barruan, 800 galdekizun baino gehiago burutu zizkien guraso, irakasle eta bestelako bitartekariei. Jasotako erantzunek mahai gainean jarri zuten beste behin familiak duen garrantzia haurrak irakurzaletasun izan daitezkeen lortzeko garaian. Lan hartan lortutako ondorioak plazaratuko ditu eta, beraz, formazio saio honetan parte hartuko duten irakurketaren bitartekariei oinarrizko aholkuak eskainiko dizkie irakurzaletasuna sustatzeko garaian kontuan izan beharrekoak.

Hain zuzen ere, hauek dira landuko dituen gaiak:

- Lehenengo urteetan ahozko kontaketeak eta irakurleei laguntzeak duen garrantzia.
- Eskolaren, bibliotekaren eta bestelako hezkuntza erakundearen rola irakurlearen formazioan.
- Hiritar irakurleak, alegia, hiritar askeak ziurtatzeko gizartean esku-hartzeko proposamenak.
- Irtenbide esplizituak eta programa berritzaileak ez-irakurleak errotik ateratzeko.
- Non eta nola programatu irakurle orokorrak, irakurle osoak: gizarte osoaren ardura.
- Berriki burututako esperientzia eta ikerketa batzuk: Portell-en egonaldia Japonen.

11:30-12:00. ATSEDENA



12:00-13:30. ARLO PSIKO-EMOZIONALAREN GARRANTZIA HAUREN IRAKURKETA OHITUREN SORKUNTZAN. Emaila: **JUAN CARLOS ALONSO**, psikologoa. Donostiako eskola batean lan egiten du, Haur eta Gazte Literaturak haurren garapenean duen eraginean aditua da eta *Bularretik Mintzora* kanpaina ebaluatzen dabil honen hastapenetik.



Bere saioan honakoak landuko ditu:

-Bularretik Mintzora egitasmoaren lorpen esanguratsuenak irakurketa ohituren ikuspuntutik.

-Guraso eta irakasleen formazioa arlo psiko-emozionalean bitartekari gisa:

- .Irakurketa eta garapen kognitiboa
- .Irakurketa eta garapen psiko-emozionala
- .Irakurketa eta hizkuntzaren garapena
- .Ahozkoitasuna eta sormenaren eta irudimenaren garapena

-Haur Literaturaren eragina haurren garapen psiko-emozionalean; BM egitasmoaren ebaluazio kualitatiboa:

- .Arreta mantentzeko ahalmena
- .Irudikatzeko ahalmena
- .Kontrol laginaren emaitzak

IZEN EMATEA:

Izen emate formularioa bete ondoren <http://aldee.org/es/matricularse.php?curso=198>

diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria bidali behar da **urriaren 20a** baino lehen aldee@aldee.org helbidera.

Gehienez 40 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen ematearen arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko eta ALDEEko bazkideak: 40 euro.
- Ez-bazkideak: 60 euro.